

aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2025eko otsaila

02-03

NOLA EGITEN DA
AURREKONTUA?

04-07

2025EKO
AURREKONTUA

08-12

AUZOEKIN PARTE
HARTZE PROIEKTUA

14-15

AZKEN
ERRIAK



2025EKO
UDAL
AURREKONTUA
ALETUZ



UDAL AURREKONTUAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA ULERTZEKO DEKALOGOA

DECÁLOGO PARA ENTENDER LA ESTRUCTURA Y FUNCIONAMIENTO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL

ZER DA?

¿Qué es el presupuesto?

Urtebetez udalaren ekonomia eta finantzak kudeatzeko erreminta da, urte horretako diru sarrerak eta gastu mugak aurreikusten dituen. Dinamikoa da, aurreikuspen bat baita, eta urtean zehar aldatu daiteke. Era berean, administrazioaren baliabideak egoki erabiltzen direla kontrolatzeko tresna da.

Además de ser un instrumento de control de los recursos, es la herramienta de gestión económico-financiera que contempla los ingresos y límites de gasto de ese año.

ZEIN ZATI DITU UDAL AURREKONTUAK?

¿Qué apartados tiene?

Diru sarrerak eta gastu edota inbertsioak bederatzi talde edo kapitulutan sailkatuta daude. Kapitulu bakoitza, partidatan banatzen da.

Los ingresos y los gastos se clasifican en nueve capítulos. Cada capítulo se divide en diferentes partidas que contienen una determinada cantidad de dinero.

DIRU SARRERAK INGRESOS	GASTUAK GASTOS
SARRERA ARRUNTAK INGRESOS CORRIENTES	GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES
<ol style="list-style-type: none"> Zuzeneko zergak Impuestos directos Zeharkako zergak Impuestos indirectos Tasak eta prezio publikoak Tasas y precios público Transferentzia arruntak Transferencias corrientes Ondasun sarrerak Ingresos de bienes 	<ol style="list-style-type: none"> Pertsonal gastuak Personal Ondasunak eta zerbitzuak Bienes y servicios Finantza gastuak Gastos financieros Transferentzia arruntak Transferencias corrientes
KAPITAL ERAGIKETAK OPERACIONES DE CAPITAL	KAPITAL ERAGIKETAK OPERACIONES DE CAPITAL
<ol style="list-style-type: none"> Inbertsioen besterenganaketa Enajenación de inversiones Kapital transferentziak Transferencias de capital 	<ol style="list-style-type: none"> Inbertsioak Inversiones Kapital transferentziak Transferencias de capital
FINANTZA ERAGIKETAK OPERACIONES FINANCIERAS	FINANTZA ERAGIKETAK OPERACIONES FINANCIERAS
<ol style="list-style-type: none"> Aktibo finantzarioak Activos financieros Pasibo finantzarioak (jasotako maileguak) Pasivos financieros 	<ol style="list-style-type: none"> Aktibo finantzarioak Activos financieros Pasibo finantzarioak Pasivos financieros

* Ondorengo orrialdeetan zehazten da zer esan nahi duen puntu bakoitzak, eta zer sartzen den horietako bakoitzaren barruan. / En las páginas posteriores se detalla el significado de cada punto.

ZER HARTU BEHAR DA KONTUTAN?

¿Cómo se compone?

Aurrekontua defizit gabe onartu beharko da. Horrez gain, sarrera arruntek (A zatia) gastu arruntak (A) + zorpetzearen amortizazioaren gastuak (9.kapitulua) baino handiagoak izan behar dute. Hauxe da formula:

Sarrera arruntak (1-5) > Gastu arruntak (1, 2, 3, 4) + pasibo finantzarioak (9).

Debe tener equilibrio entre ingresos y gastos. Además, los ingresos corrientes (parte A) deben ser superiores a los gastos corrientes (parte A).

ZER GERTATZEN DA BIEN ARTEKO DIFERENTZIA TXIKIA BADA?

¿Y si no es suficiente?

Sarrera arruntan eta gastu arruntaren arteko aldea ez bada nahikoa kapital eragiketarako finantzatzeko, kapital sarrera edo mailegu berrien bidez finantzatu beharko da.

Si la diferencia entre los ingresos corrientes y el gasto corriente no fuera suficiente para financiar las operaciones de capital, deberá financiarse mediante nuevos ingresos de capital o préstamos.

ZER GERTATZEN DA URTE JAKIN BATEAN GAUZATU EZ DIREN PARTIDEKIN?

¿Qué pasa con las partidas que no se han ejecutado durante ese año?

Kasu batzuetan, hurrengo urteko aurrekontuan txertatu daitezke, beti ere jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berarekin erabiltzeko badira. Horretarako, diruzaintza gerakin nahikoa egon behar du, eta ekitaldi berrian gauzatu behar dira.

En algunos casos, se pueden incorporar créditos en el presupuesto del año en curso, siempre que se utilicen con la misma finalidad. Para ello, debe existir crédito en los remanentes, y deben materializarse en el nuevo ejercicio.

ZER GERTATZEN DA AURREKONTUAN AURREIKUSITA EZ DAGOEN ETA ITXARON EZIN DUEN EDO NAHIKOA KREDITU EZ DUEN GASTU EDO INBERTSIO BAT EGIN NAHI BADA?

¿Y si se debe acometer una inversión no prevista, o no hubiera suficiente crédito?

Aurrekontuaren gastu eta sarrerak aldatu ahal izango dira kreditu aldaketan bidez. Era ezberdinetakoak izan daitezke. Udalbatzari edo alkateari dagokio hori onartzea.

Se puede modificar el presupuesto de gastos mediante créditos adicionales. Su aprobación corresponde al Pleno o al alcalde.

DIRU SARRERAK INGRESOS

Nondik lortzen du dirua udalak?


ZUZENeko ETA ZEHARKAKO ZERGAK | Impuestos

Besteak beste, atal honetan sartzen dira ondasun higiezin gainerako zergak, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergak, enpresa jarduerenak, obrenak... la 7 milioi jasotzen ditu udalak zergetan.

Impuestos sobre bienes, sobre vehículos de tracción mecánica, sobre actividades empresariales, de obras... El ayuntamiento recauda casi 7 millones.

TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK | Tasas y precios públicos

Zabor bilketa, hirigintza baimenak, lurzorua okupazioarena,



matrikulak (musika eskola, kiroldegia...). Legeak hala behartuta, hondakinen kudeaketan izan da iguera handiena, zerbitzuaren kostu osoa tasaren bidez estaltzea eskatzen baitu. Orain arte, defizitarioa izan da.

Gestión de residuos, licencias, ocupación del suelo público, cuotas o matrículas... El mayor incremento se da en la recogida de residuos por imperativo legal, ya que exige cubrir el coste total del servicio a través de la tasa, cuando hasta ahora era deficitario.

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | Transferencias corrientes

Nagusiki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsetik datorrena da, 17,9 milioi, baita beste erakundeek (Eusko Jauriaritzak, Aldundiak...) egiten dituzten beste ekarpen batzuk ere. Guztira 19,2 milioi euro jasotzen ditu udalak beste entitateetatik.

La parte principal, 17,9 millones, proviene del Fondo Foral de la Diputación. En total el ayuntamiento recibe 19,2 millones de euros de otras entidades (GV, DFG...).

ONDASUN EDO ONDARE SARRERAK | Ingresos de bienes o patrimonio

Udalaren jabetzako edo parte hartzea duen entitateen dibidenduak (Tolargi, Tolosa Gasa...), ondasun publikoen ustiapenagatik (etxebizitzak, lokalak...) jasotako errentak sartzen dira atal honetan. 1,4 milioi jasoko ditu guztira udalak.

Cánones o alquileres percibidos por la explotación de bienes públicos (viviendas, locales...), o dividendos de las participaciones (Tolargi, Tolosa Gasa...). Un total de 1,4 millones.

GASTUAK GASTOS

Zertan gastatzen du dirua udalak?

ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | Bienes corrientes y servicios

Gastuaren % 41 oinarriko zerbitzuetarako egiten da: garbiketa, argiteria, lorezaintza, bide publikoa, eraikinen mantentze-lanak, energia... Aurten % 9,28 igo da, 1,3 milioi. Igoera horren atzean daude zenbait kontratutan txertatu diren hobekuntzak, langileen lan baldintzak hobetzen eta zerbitzua bera indartzen lagundu dutenak: esku hartze psikosozialekoan

(174.000 €), etxez etxeko laguntza zerbitzuan (233.786 €), kale garbiketara (370.000 €) eta kirol instalazioen kudeaketa kontratua (517.000 €).

El 41% del gasto total se destina al mantenimiento de servicios básicos como limpieza, alumbrado, jardinería, energía... Este año ha subido un 9,28% por las mejoras de varios contratos para mejorar las condiciones laborales y reforzar el servicio: son los casos de intervención psicosocial (174.000 €), ayuda domiciliaria (233.786 €), limpieza viaria (370.000 €) y gestión de instalaciones deportivas (517.000 €).

GIZA BALIABIDEAK | Personal


Udaleko giza baliabideena da bigarren zati nagusia, % 32. Bi postu sortu dira, etxebizitza teknikariarena eta komunikaziorako teknikariarena, azken honek gastu gehigarria izan gabe. Denbora tarte baterako beste sei postu hornituko dira, eta 'Lehen aukera' programaren bidez, txertatu da zazpi gazte urtebetez kontratatzeko diru kopurua.

Es la segunda parte más importante, con el 32% del gasto total. También se incluye la contratación temporal de refuerzo de siete puestos, y el programa para la contratación de siete jóvenes por un año.

DIRULAGUNTZAK | Subvenciones

Atal honetan sartzen dira, erakundeek egiten dizkien diru ekarpenak, eta udalak familiei eta kirol, kultur eta auzo elkarrekin banatzen dizkien dirulaguntzak sartzen dira. Gastuaren % 12 dira, eta guztira 4,7 milioi bideratzen dira.

Aportaciones económicas y subvenciones que el ayuntamiento reparte a entidades, familias, así como a asociaciones deportivas, culturales y vecinales. Representan el 12% del gasto, y se destinan un total de 4,7 millones.



Gastu esanguratsuenak
Gastos más relevantes

Kaleen eta eraikinen garbiketa | Limpieza de calles y edificios: **2,4 milioi**

Hondakinen bilketa eta kudeaketa | Recogida y gestión de residuos: **2,3 milioi**

Kirol instalazioak
Instalaciones deportivas: **1,9 milioi**

Etxez etxeko laguntza
Ayuda domiciliaria: **1,5 milioi**

Dirulaguntzak elkarrekin
Subvenciones a asociaciones: **1,4 milioi**

Energia eta hornidurak
Energía y suministros: **1,4 milioi**

Jarduera soziokulturalak
Actividades socioculturales: **1,1 milioi**

ZEIN DIRA 2025EKO AURREKONTUAN SARTZEN DIREN INBERTSIO NAGUSIENAK?

PRINCIPALES INVERSIONES QUE RECOGE EL PRESUPUESTO DE 2025



Gorriti plaza

Oztopoak bideratu ostean, udal gobernuaren helburua da 2025. urtean esleitu eta abiatzea eremua birgaitzeko obra. Lanak gauzatzeko eta obra zuzendaritzarako 855.000 euro bideratu dira.

Gorriti: Una vez resueltos los problemas, el objetivo es adjudicar y arrancar las obras este año. Para la ejecución de los trabajos y dirección de obra se han destinado 855.000 euros.

Alde Zaharreko Plan Integrala

Bigarren faseko ekintza plana egiteko partida txertatu da aurrekontuan, 60.000 euroekin. Ekintza plana egin ez ezik, gauzatzen hasi ahal izatea da helburua.

Parte Vieja. Se ha incluido en el presupuesto una partida para la elaboración del plan de acción de la segunda fase del Plan Integral con 60.000 euros. Se trata no sólo de elaborar el plan de acción, sino de poder empezar a ejecutarlo.



Ikasgela

Udalak denbora darama gai honekin lanean. Lokala bera txukundu eta atontzeko, 102.000 euro gorde dira. Lan horiek gauzatu bitartean, behin-behineko beste soluzio bat ari da prestatzen udala.

Aula de estudio: El Ayuntamiento lleva tiempo trabajando con este tema. Para el acondicionamiento del local se han reservado 102.000 €.

AuzoEkin

Aurten, herriko zortzi eremutan proiektu txikiak egitea aurreikusten da. Hiru eremuren diagnostiko integrala egiteko partida ere txertatu da: landa eremuarena, eta Izaskun eta San Esteban auzoena.

Barrios: Se prevé realizar pequeños proyectos en ocho zonas de la localidad. Se ha incluido también una partida para el diagnóstico integral de tres zonas: la zona rural, y los barrios Izaskun y San Esteban.



Asfaltatze plana



Hiri eta landa eremuko errepide zatiak konpontzea izango da lanen xedea. 500.000 euroko aurrekontua izango da horretarako.

Plan de asfaltado. Los trabajos consistirán en la reparación de tramos de carreteras urbanas y rurales. El presupuesto será de 500.000 euros.

Usabal kiroldegiko instalazio termikoa

Galdara egoera kaskarrean dago, eta berritu egin behar da, eta sistema jasangarriago baten aldeko hautua egingo da. Proiektuaren balioa 1.900.000 eurokoa da, eta Next funtsetatik 867.000 euroko dirulaguntza lortu duenez, udalak milioiaren bueltako inbertsioa egingo du.


Instalación térmica del polideportivo Usabal. La caldera, que se encuentra en un estado precario, debe renovarse, y se optará por un sistema más sostenible. El ayuntamiento invertirá cerca de un millón de euros.



Tolosa-Ibarra lotunea

Ibarrako Udalarekin elkarlanean, Idoiaga-San Inazio inguruko segurtasuna hobetzeko urbanizazio obra egingo da. Horretarako, iazko aurrekontuan helburu honetara bideratutako 110.000 euroei beste 40.000 euro gehituko zaizkie.

Conexión Tolosa-Ibarra. En colaboración con el Ayuntamiento de Ibarra, se llevará a cabo una obra de urbanización para mejorar



la seguridad en la zona de Idoiaga-San Inazio. Para ello, se destinarán otros 40.000 euros a los 110.000 euros destinados a este fin en el presupuesto del año pasado.

LED argiteria

Belaten, Usabal kiroldegiaren inguruan eta Txarama inguruko Tolosako lurretan argiteria berritzeko 60.000 euro izango dira. Samaniego Ikastetxeko HHko eraikinean LED argiteria jartzeko ere 192.000 euro bideratuko dira.


Alumbrado. Renovación del alumbrado en Belate, inmediaciones del polideportivo Usabal y en los terrenos de Tolosa cercanas a Txarama. También se destinarán otros 192.000 euros para instalar luces LED en el colegio Samaniego.



Udalaren webgune berria

Herritarren informaziorako ez ezik, lanerako tresna izatea planteatzen da, eta helburua da tramitazioa erraztea, eta informazio praktikoa herritarrentzako irisgarriagoa egotea.

Nueva web. Más allá de un portal para la información ciudadana, se pretende que se convierta en una herramienta de trabajo, con el objetivo de facilitar la tramitación, y hacer más accesible la información práctica a la ciudadanía.



BESTE LAN BATZUK

Bestelako proiektu batzuk lantzen ari da udala, eta aurrekontuan jasota ez badaude ere, proiektuak idatzi eta exekuzioa egiteko aukera dagoenean, kreditu aldaketak egitea da asmoa, lan horiek gauzatzeko. Horien artean daude, **lurre 1-13 eta Araba etorbideko plazen berrurbanizazioak; lurrarmendi pasealekuaren berrurbanizazioa; Arrameleko zubia eta biribilgunea egokitzea; Trianguloa plazako lurraren aldaketa; edota Arkaute etxeko mendizaletasunaren museoa.**

Otros trabajos no están incluidos en el presupuesto, pero el objetivo es que según finalicen de redactar los proyectos, se puedan realizar modificaciones de crédito para poder ejecutarlos. Por ejemplo, la reurbanización de las plazas lurre 1-13, Araba Etorbidea y lurrarmendi pasealekua; el acondicionamiento del puente y la rotonda de Arramele; el suelo de Trianguloa plaza; o el museo del montañismo.



TOLOSAKO AUZOAK MODU INTEGRALAGO ETA OREKATUAGOAN GARATZEA HELBURU

Herritarren parte hartzean eta auzoen garapenean sakontzeko urrats garrantzitsua egingo du Tolosako Udalak aurten: AuzoEkin, partaidetza eta garapena bateratuko dituen udal estrategia jarriko da martxan.

Auzo guztien garapen integral eta orekatua sustatzea da helburua, udalaren baliabide eta inbertsioak herriko eremu guztietara iristeko. Gainera, auzotarrei parte hartzeko bide zuzenagoa ez ezik, erabakimen handiagoa ere emango zaie.

Horretarako, Tolosa zortzi eremutan banatu da. Zonak definitzerako garaian, askotariko irizpideak hartu dira kontuan: eguneroko bizitzako fluxuak, auzo identitateak, izaera, gertutasun geografikoa, muga orografikoak, beharren antzekotasuna, degradazioa...

Zona bakoitzaren diagnostikoa

Eremu bakoitzaren egoera eta beharrak aztertzea izango da lehen urratsa, eta gero lau urterako plan bana sortuko da zona bakoitzerako.

Lanketa progresiboa izango da. 2025. urtean hiru eremutan egingo da: San Esteban, Izaskun eta landa eremuko auzoetan. Horiei Alde Zaharra gehituko zaie, paraleloan lantzen ari baita udala Plan Integrala. 2026an eremu gehiagotara zabalduko da.

Diagnostikoak egiteko etxeko inkestak, sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeak eta talde dinamikak egingo dira zona bakoitzeko auzotarrekin. Lehen aldiz egingo du Udalak gisa honetako azterketa sakon bat. Aurki antolatuko dira lehen saioak.

Eremu bakoitzak bere aurrekontua

Ondoren, eremu bakoitzaren garapenerako plana egingo da, egin beharreko lanak jasoko dituen.

Horretarako, zona bakoitzak aurrekontu bat izango du urtero. Lehen urtean, 8 eremuen artean 500.000 € banatuko dira, orain arte parte hartze bidezko aurrekontuetara bideratutakoak. Eremu bakoitzak 60.000 euroko kopuru finkoa izango du, eta gainerako 20.000 euroak beste aldagai aldakor batzuk aplikatuta banatuko dira guztien artean; aurten, biztanle kopuruaren arabera. Aurrera begira, helburua da aurrekontuaren zati horretara bideratu beharreko lanak auzotarrek lehenestea.


El Ayuntamiento de Tolosa pondrá en marcha el proyecto AuzoEkin que, mediante la participación ciudadana, promoverá un desarrollo integral y equilibrado de todos los barrios. El objetivo es que los recursos e inversiones municipales lleguen a todas las zonas de la localidad. Para ello, Tolosa se ha dividido en ocho zonas.

Un diagnóstico por cada zona

Ahora el primer paso será analizar la situación y necesidades de cada zona, y luego se creará un plan a cuatro años por cada zona, que recogerá las intervenciones a realizar. Será un trabajo progresivo. En 2025 se desarrollará en San Esteban, Izaskun y barrios rurales. A ellos se sumará la Parte Vieja, ya que se trabaja paralelamente en su Plan Integral. En 2026 se extenderá a más zonas. Será la primera vez que el Ayuntamiento realice un estudio exhaustivo de este tipo. En breve el ayuntamiento comenzará a organizar las sesiones de estas zonas.

Presupuesto para cada zona

Una vez finalizado el diagnóstico, se elaborará el plan de desarrollo de cada zona y para ello cada zona dispondrá de un presupuesto anual. En esta primera experiencia se pretende dividir 500.000 € entre las ocho zonas. Cada zona tendrá una cantidad fija de 60.000 euros, y los 20.000 restantes se repartirán entre todos aplicando otras variables; en este primer año, en función del número de habitantes de cada zona. El objetivo es que los trabajos de esta parte del presupuesto sean priorizados por los vecinos y vecinas de cada zona.



AURTENGO AURREKONTUAN ZER?



Eredu aldaketa tarteko, trantsizio urtea izango da hau. Hori dela eta, ez da parte hartze bidezko aurrekontu prozesurik zabaldu. Horren orde, AuzoEkin strategiaren eremuen logikara gerturatzen den proposamena landu du udalak, auzoek egindako eskariak eta aurreko urteko prozesuko proposamenak aintzat hartuta.

Con motivo del cambio de modelo, este será un año de transición. Por ello, no se ha abierto ningún proceso participativo de cara a los presupuestos. En su lugar, el ayuntamiento ha elaborado una propuesta que se acerca a la lógica de zonificación de AuzoEkin, teniendo en cuenta las demandas realizadas en años anteriores.

El presupuesto de 2025, por tanto, incluye, entre otros, la primera fase del proyecto de urbanización del entorno de la ermita del barrio

de San Blas, la puesta en marcha de una iniciativa para reverdecer en la medida de lo posible la Parte Vieja, la creación de un paso de peatones en la parte alta de Kondeaneko Aldapa, la renovación de la zona verde de San Esteban, la renovación del mobiliario del parque infantil de Urkizu, la instalación de marquesinas de las paradas de autobús en el barrio de Izaskun, la redacción del proyecto de urbanización de la zona de la trasera del supermercado del barrio de lurre, o la obra del bidegorri de la calle lurrramendi.



ZEGIN LAN SARTU DIRA 2025EKO AURREKONTUAN?

Adibide nagusienak

- **San Blas** auzoko ermitaren inguruko urbanizazio proiektuaren lehen fasea. Espaloia egin nahi da ermitaren eta zentral elektrikoaren artean. Horretarako, lur zati batzuk desjabetu behar dira, eta hori egin nahi da lehen fasearen barruan.
- **Alde Zaharra**, ahal den neurrian, berdetzeko egitasmoa martxan jartzea.
- **Kondeaneko aldaparen goialdean** zebra bidea egitea, Lore-Arteko etxebizitzaren eta Inmakulada Ikastolaren arteko eremuan. Abiadura handian pasatzen dira ibilgailuak, eta segurtasuna hobetzea izango da helburu nagusia.
- **San Estebanen** berdegunea berritzea.
- **Urkizuko** haur parkeko altzariak berritzea.
- **Izaskun auzoan** autobus geltokietako markesinak jartzea.
- **lurre auzoko** supermerkatuaren atzealdean zerbrabidea egin eta ingurua urbanizatzeko proiektua idaztea. Ikusgarritasun gutxiko puntua da, bai gidarientzat, baita oinezkoentzat ere, eta arrisku egoerak sortzen dira.
- **lurrramendi kaleko** bidegorriaren obra. lurrramendi kaletik sartuko da bidegorria, pasealekutik beharrean.

ETA GERO, NOLA EGINGO DA PARTE HARTZEA?


¿CÓMO PARTICIPAR EN AUZOEKIN?



Urtean bi bilera egingo dira eremu bakoitzean. Bata, ikasturtearen hasierako hilabeteetan (iraila, urria, azaroa eta Abendua artean). Bigarrena, ikasturte amaiera aldera (martxotik ekainera bitarte). Bilera horiek irekiak izango dira eremu horretako auzotar, bertako langile edota bizia bertan egiten duten guzientzat.

Eremu bakoitzak, hortaz, parte hartzeko gune egonkor bat izango du. Eremu bakoitzeko auzotarrek erabakiko dute gune horren egitura, bakoitzaren behar eta ahalmenen arabera.

Prozesu bakoitzaren jarraipen zehatza egiteko, gainera, Erabaki/Decidim plataforma udal webgunean txertatzeko lanean ari da udala.



Se celebrarán dos reuniones anuales en cada zona. Una al inicio del curso (septiembre-diciembre); y la segunda, a finales de curso (de marzo a junio). Estas reuniones serán abiertas a todas aquellas personas que residen y/o trabajan en la zona, y el ayuntamiento publicará las convocatorias previamente.

Cada zona contará, por tanto, con un espacio estable de participación. La estructura de este espacio será decidida por las y los vecinos de cada zona en función de sus necesidades y capacidades. Además, para hacer un seguimiento exhaustivo de cada proceso, se integrará la plataforma Erabaki/Decidim en la web municipal.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Abegi eta begirunezko begirada

Urtebete pasa da Abegi, Eguneko eta Gaueko Arreta Zerbitzua udal zerbitzu izatera pasa zenetik. Tolosan, 1986. urteik 2023ko abendura arte, boluntario talde batek eman izan die laguntza etxerik ez duten pertsoneri.

Duela gutxi boluntario talde hori aitortu dugu. Merezitako aitortza, ia lau hamarkadaz beren denbora eta maitasun osoa eskaini baitiote proiektu honi. Komunitate bat, bere komunitatearentzat lanean. Bihotzez, eskerrik asko lanean aritu izan zareten guztioi, Tolosan begirunezko begirada sustatzeagatik.

Omenaldiaz harago, urteurreneko ekitaldian Eguneko Zentroan erabiltzaile izan den gazte batek hartu zuen hitza. Bereziki hunkitu ninduen. Familia atzean utzita iritsi zen hona, eta kaleko egoeran zen. Abegin lanketa egin ondoren, bere lekua topatu du orain. Hori bakarrik ez: orain bera ere boluntario modura ari da lanean eragile sozial bat baino gehiagotan: berak jasotako laguntza besteei ere eskainiz. Eskertzekoa eta mirestekoa. Berak esandakoak, hausnarketara narama: zeinen garrantzitsuak diren aukerak izatea, aukerak behar dituenarentzat. Jarrai dezala Abegik, luzaroan, aukera horiek sortzen.



Apattako II. Fasea noizko?

Jakina da industria dela gure herri txiki honen garapen ekonomikoaren eta ongizatearen zutabe nagusia. Zenbat eta industria-enplegu gehiago, orduan eta soldata eta lan-baldintza hobekak, zerbitzu publiko sendagoak eta gizarte-babeserako sistema zabalagoa.

Gure tokiko erakundeek egin ditzaketen gauzen artean, lurzoru industrialaren sustapena dago, inguruan dauden enpresei hazteko aukerak emateko, eta, aldi berean, enpresa berriek eskualdean sustraitzea ahalbidetzeko.

Gure kaltetan da, etorkizuna eta proiektu berriak dituzten enpresek Tolosatik kanpo haztea pentsatu behar izatea, ez zaiolako lurzoru industrialaren premiari behar bezala erantzuten.

Denbora gehiegi daramagu Apatta Industrialdeako II. Fasea noiz aktibatuko den zain, eta ez dugu gaia egungo Udal Gobernuaren lehentasunen artean ikusten. Ez dugu legegaldi galdu bat nahi Apattako garapenarentzat.

Llevamos demasiado tiempo esperando a ver que se active la Fase II del Polígono de Apatta, y no vemos esta cuestión entre las prioridades del actual Gobierno Municipal. No queremos una legislatura perdida para el desarrollo de Apatta.



Etxebizitarik eza

Tolosak gora egiten jarraitzen du biztanleriari dagokionez. Etxebizitza falta da tolosar gehienaren arazo larrienetako bat. Tolosarren belaunaldi berriek, askotan, Tolosa utzi behar izaten dute.

Legegintzaldi honetan martxan jarriko dira aurreko legegintzaldiko proiektuak (Eusko Jaurlaritzak Amarozen, Yurramendin eta San Cosmen). Besterik ez.

EH Bildu no impulsa proyectos nuevos a ejecutar en los próximos años. Ni en la Parte Vieja ni en el Ensanche. En San Esteban, el único espacio para edificar vivienda nueva, proyectar solo 450 viviendas es condenar el barrio a la situación actual.

Sacar al mercado los 300 pisos vacíos es un proceso complejo. Quedan soluciones: incentivar el traslado de negocios en primeras plantas a bajos vacíos. También modificar las ordenanzas para que locales que no están en la parte vieja, (Bidebieta, El Carmen, Paper kalea Amaro...) puedan habilitarse como viviendas. EHBildu no da noticias al respecto.

AZKEN BERRIAK

Actualidad

UDALEKU IREKIEN ARAUDIAK HASIERAKO ONESPENA JASO DU

Beste urrats bat haur eta nerabeentzako udaleku hezitzaileak antolatzeko bidean. Martxan jarri ahal izateko beharrezkoa den erregelamendua onartu da jada.

Araudiak zehazten du Tolosan erroldatutako 6 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeek parte hartu ahal izango dutela udalekuetan, bi adin tartetan banatuta: 6-10 eta 11-14. Udalekuen prezio publikoak ere onartu dira: astebeterako 25 euro; bi asterena 45 euro; hiru asterako 65 euro; eta lau asterenak, berriz, 85 euroko balioa izango du. Aisialdi-zerbitzuaren kontratazioan lanean ari da udala, eta hori esleitutakoan emango dira eskaintzari berari, datei, eta izen emateari buruzko xehetasun guztiak.

El Ayuntamiento ya ha aprobado el reglamento para la puesta en marcha de las colonias educativas de verano. La normativa específica que podrán participar jóvenes de Tolosa de entre 6 y 14 años, divididos en dos franjas de edad: 6-10 y 11-14. También se han aprobado sus precios públicos: 25 euros para una semana; 45 euros para dos semanas; 65 euros para tres semanas; y 85 euros para cuatro semanas. El Ayuntamiento está trabajando en la contratación del servicio de ocio, y una vez adjudicado se darán todos los detalles sobre la oferta, las fechas y la inscripción.

Las oficinas de Servicios Sociales se trasladaron a Aranburu Jauregia para poder realizar las obras de reacondicionamiento del espacio. Una vez finalizadas las obras, ya han vuelto a su ubicación habitual. Se han mejorado los espacios de trabajo y las instalaciones para la ciudadanía. Además de recuperar la sala reuniones, se ha renovado la sala de espera y los aseos con todas las medidas de accesibilidad.

GIZARTE ZERBITZUAK, OHIKO BULEGOETARA BUELTAN



Uztailaren amaieran Tolosako Udaleku Gizarte Zerbitzuen bulegoak Aranburu Jauregira lekualdatu ziren, espazioa berregokitzeko lanak egin ahal izateko. Bada, **obrak amaituta, jatorrizko espaziora itzuli dira jada.**

Herritarrei eskaintzen zaien arreta eta bertako langileen lan espazio, baliabide eta azpiegiturak hobetzea izan da lanen helburua. Espazioa behar berrietara egokitu da, lantaldea handitu egin baita. Bileren gela berreskuratu ez ezik, itxarongela eta komunak ere berritu dira, irisgarritasuna bermatzeko neurri guztiekin.

TOLOSAKO HIZKUNTZA POLITIKAKO PLAN ESTRATEGIKOA, ONARTUTA

Tolosa ya cuenta con el Plan Estratégico de Política Lingüística de Tolosa para la próxima década. Se trata de un plan elaborado conjuntamente por el Ayuntamiento, UEMA y Galtzaundi. Recoge 160 iniciativas con un objetivo claro: aumentar la aptitud y potenciar el uso del euskera, para que sea la lengua habitual de Tolosa. Tiene 5 ejes estratégicos y 39 líneas de trabajo: gobernanza, actitud y motivación, conocimiento y competencia, uso e investigación.



2025etik 2034ra arteko Tolosako Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoa aurkeztu dute, Tolosako Udalak, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Galtzaundi Euskara Taldeak. Hurrengo hamarkadarako bide-orria izango da.

160 egitasmo biltzen ditu, helburu argi batekin: euskara-gaitasuna handitzea

eta erabilera indartzea, **euskara izan dadin Tolosako ohiko hizkuntza.** Bide-orria egiteko, oinarri modura hartu da Eusko Jaurlaritzaren Aroa markoa. Hedadura zabala du planak, 5 ardatz estrategiko eta 39 lan-ildo baititu: gobernantza, jarrera eta motibazioa, ezagutza eta gaitasuna, erabilera eta ikerketa dira bost ardatz estrategikoak.

AUZOETAKO JAIETAN, BARRAKEN TASAK MERKEAGO



Aldaketak egin ditu udalak herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantzan. Aldaketetako bat barraken ingurukoa da.

Orain arte inauteriek eta sanjoanek tasa berezitua izan ohi zuten feriale-

rientzat; bada, auzoetako jaietako tasak horiekin parekatuko dira aurrerantzean, bi helbururekin: alde batetik, feriale-rientzat auzoetako jaiak erakargarriago egitea; eta, bestetik, **herritarrei begira, barraketako txartelen eta bonuen salneurriak jaisteko oinarria jartzea.**

El Ayuntamiento ha modificado la ordenanza de tasas por el aprovechamiento especial del suelo público. El principal cambio afecta a las barracas. Hasta ahora los Carnavales y los Sanjuanés tenían una tasa diferenciada para las y los feriantes. Ahora las tasas de las fiestas de los barrios se equiparan a éstas, con el doble objetivo de hacer más atractivas estas fiestas para las y los feriantes, y de poner la base para bajar los precios de los billetes y bonos de las barracas de cara a la ciudadanía.

Editorea: Tolosako Udala
Diseinu eta maketazioa: Dosges
Inprimaketa: Gráficas Ibarra
D.L.: SS-340/06

**Kontsultatu
Alearen edukia
zeinu hizkuntzan:**

*Consulta el contenido
de Aleka en
lenguaje de signos:*

HEMEN! >



JASO TOLOSAKO UDALAREN BERRIAK WHATSAPP BIDEZ

LO ÚLTIMO SOBRE TOLOSA EN TU WHATSAPP



01

Sartu tolosa.eus-en

Entra en tolosa.eus

02

Harpidetu kanalera, dagokion estekan klikatuta

Suscríbete al canal del Ayuntamiento clicando el enlace correspondiente

03

Harpidetu ondoren, aktibatu jakinarazpenak kanpaia sakatuta


Una vez realizada la suscripción, activa las notificaciones clicando en la campana

04

Udalak bidalitako mezuak bakarrik jasoko dituzu zure telefonoan: albisteak, alertak, agenda...

Únicamente recibirás los mensajes del Ayuntamiento: noticias, alertas, agenda...

• **Harpidetu euskarazko kanalera hemen:**



• **Suscríbete al canal en castellano aquí:**

